

3- Funtsezko elkarteak:

Gure enpresa funtzesko 4 pertsonaz egongo da osatuta:

June López Sáez de Ibarra, haurtzaindegiko gainbegiralea da; bera arduratzen da langileak kontratatzeaz eta beraien lana gainbegiratzeaz, dena ondo atera dezan. Jare Martinez de Marquinez, webgunea eta sare sozialak eramateaz arduratzen da eta bezeroekin kontaktuan jartzen da, dena ondo dagoen galdetzeko eta beraien zalantzak argitzeko. June Jiménez Alonso, bazkideekin negoziatzen du eta beste enprekin harremanetan jartzen da, elkarteak sortzeko. Bukatzeko, Hugo Nicolau Nodar, enpresako administratzailea da. Enpresaren helburuak lortzeko, planifikatu, antolatu, zuzendu eta kontrolatzen du. Baita, enpresaren aurrekontuaz eta kostuaz arduratzen da.

Bestalde, Gasteizko **Down sindromeko elkarte**a-rekin elkartuko gara, eta elkarte horrekin hainbat jarduerak osatuko ditugu. Hori dela eta, elkarte honetan dauden umek, umekin denbora pasa eta jolastu ahal dute, eta horrela, ikusi dezakete guztiok pertsona berdinak garela eta etorkizun batean, gizartean dauden aurreiritziak desagerrarazten lagundu dezakegu.

Azkenik, gure haurtzaindegian parte hartzen duten umeei, hemengo produktuak eskainiko diegu; adibidez, fruta. Gasteizko kaleetako fruta-denda txikiei lagundu ahal diegu beraien enpresak aurrera eramaten. Era berean, umek ikasi dezakete osasuntsu jaten eta jakin dezakete frutaren garrantzia.

